

bidegileak



Karmen Balentziaga (1922-2000)

Egilea:

AITOR MANTEROLA

Eskolatik etxera

Karmen Balentziaga 1922ko otsailaren 2lean, jaio zen, Zumaian. Agustin Balentziaga zuen aita, eta Ana Maria Olaizola ama. Harreman horrek eman zuen aurreneko fruitua izan zen, ondoren jaioko ziren beste zazpi anai-arrebetan aurrenekoa. Horretan ere aitzindaria izan zen, gero, bizi izan zenean gauza askotan izan zen bezala.

Umetatik izan zuen bizitasuna eta azkartasuna, eta eskolan erakutsi zuen hori. Monjas de la Caridad de Vedruna ikastetxera joaten zen, Zumaian bertan, eta han egon zen 14 urte bete zituen arte. Behin baino gehiagotan, or-

dea, eskolara joan gabe ere geratu zen, bere buru azkarrak asmatutako aitzakiaren bat tarteko. Nortasun handikoa zela txiki-txikitik erakutsi zuen, eta lagunen artean bazuen halako begirune bat. Eskolatik tarteka piper egin arren, ikasle ona izan zen. Ez zion, hala ere, askorako balio izan, garai hartako ume gehienek bezala, berehala utzi behar izan zituelako ikasketak. Familia aurrera ateratzeko etxean laguntza behar zuen amak,



Karmen Balentziaga Olaizola (1922-2000)

eta etxeko lanetan hasi zen. Horretan eragin handia izan zuen anai-arreba kopuru handiak.

Ez zuen lan xamurra izan, bere atzetik jaio ziren bost senide mutilak izan zirelako: Joxe, Manolo, Erramun, Pako eta Antonio. Bi ahizpa txikiak, Maria Luisa eta Mari Paz jaio artean, sei gizonezko eta bi emakumezko bizi izan ziren. Aita lanean zebilela kontuan izanda, amari lagundu beste erremediorik ez zuen izan, eta eskola laga, eta etxean laguntzen hasi zen. Horregatik esaten zien Karmenek bere anaiei beraien «bigarren ama» zela. Ondo egiten zuen lan hori, eta amarekin batera ederki hezi zituen anai-arrebak. Izaera sendoa izanik, ez zuen arazo handirik izan horretan, eta edukiz gero, gainditu egiten zituen.

Etxean ez ezik, Arroako izekorenean ere jardun zuen ama lanetan. Zazpi mutiko zituen hark, eta amak askotan eramaten zuen izekori laguntzera. Askotan izaten zituen lehen-gusuekin borroka txikiak, eta horrek berez sendoa zen izaera gehiago sendotu zion.

Etzetik kanpoko lanetan hasi bitartean, amaren lanak egiten aritu zen. Bien bitartean, bere lau anaiak seminarioko bidea hartu zuten. Handik urte askora, bere anaiei hauxe esaten zien sarri-sarri, aspaldiko garai haiek gogoan: «Zuek bezala ikasi banuen, zer izango ote nintzen ni». Ez zekien ondo, bizitzak zein bidetatik eramango zuen zahartzaroan.



Karmen Balentziagaren gurasoak:
Agustin Balentziaga eta Ana Maria Olaizola

Etzetik kanpoko lanak

Bere aurreneko lana etxeko negozio batean izan zuen: izeko Felisaren Uxarrueneko jate-txean. Han jardun zuen bolada batean, eta ondorengo bi lanetan aritzeko eskarmentua hartzeko oso lagungarri izango zitzaion. Izan ere, 15 bat urterekin herritik kanpo hasi zen lanean. Donostian aurkitu zuen lana, aurretik amak jardun zuen etxe berean. Reina Regente kalean zegoen etxe hura, eta ez zituen

edonorentzako lanak egin: Donostiako alkate izan zen Periko Zaraguetaren etxean izan zen zerbitzari. Amarekin gustura geratu ziren etxe hartan, eta alaba bidaltzeko eskatu zioten. Amak ezetz esan zien, baina Karmenek joan nahi zuela-eta, azkenean han aritu zen lanean, urte askoan. Hilean behin itzultzen zen Zumaiara, eta lanean irabazitako diruaren zati bat anai-arrebei opariak erosten gastatzen zuen, eta etxera itzultzen zen baikoitzean festa izaten zen Balentziagatarrean; gainontzekoa, etxerako izaten zen, hiru diru sarrera bakarrik zituztelako: aitarena, Ramon anaia torneroarena eta Karmenena.

Donostian ez ezik, Zestoan ere egin zuen lan, Arozena Hotelean, hain zuzen. Udan joaten zen hara, Zumaiako beste emakume asko bezala. Ez zuen, ordea, asko gozatu. Etxekoandrea oso gogorra zen langileekin, eta baldintza zailetan eginarazten zien lana. Ordu mordoa sartzeaz gain, jateko gutxi ematen zien, nahiz eta nagusientzako ugari gorde. Egoera horren aurrean, Karmen ez zen isildu. Nortasun handikoa izanik, etxe-koandreari aurre egin zion, eta, azkenean, lortu zuen langileen baldintzak hobetzea. Askok ez zuen irabazten, baina etxean laguntzeko adina bazen, eta horrenbestean, gustura.



Senide guztiak: zortzietan zaharrena zen bera. Goian, ezkerretik hirugarrena da

Zamorako gizon beltzaran hura

Karmenek ezer gutxi zekiela, Zamorako Arcilla herrian hasi zen loratzen bere bizitzako maitasuna. Lanak egin zuen loratzea. Enrique Vazquez izeneko gizonetzko batek hemen inguruan trenbideak egiteko lana zegoela entzun zuen, eta Euskal Herrira etortzeko eskaria egin zuen. Zortzi egun besterik igaro ez zirenean, erantzuna jaso zuen: baiezkoa. Maletatxoa egin, eta han abiatu zen gizona ezezaguna zuen lurraldera. Patuak hala erabakita, Zumaiaara bidali zuten. Kanpotik etorritako langile asko bezala, apopilo bizi behar izan zuen hainbat etxetan. Horietako batean



Enrique Vazquez eta Karmen Balentziaga hasiera-hasieratik maitemindu ziren, baina oztopo handiak izan zituzten harremana sendotzeko

bizi zen Karmen, hirugarren solairuan; hiruzpalau gizon gazte, aldiz, tartean Enrique zela, bosgarrenean bizi ziren. Kantera etxea zen, Karnizeria kalekoa.

Karmenek, eskailerak garbitzen ari zen batean, Enriquerekin egin zuen topo, eta hantxe hasi zen guztia. Elkarri egindako aurreneko begirada hura nahikoa izan zen maitemintzeko, eta harrezkero, eskaileran bat ala bestea zebilela ohartu orduko, aitzakiaren bat izaten

zuten etxetik atera eta elkar ikustera joateko. Adiskide hutsak ziren hasiera batean, baina maitasuna loratzen joan zen, eta egun batean, harremana urrunago eramatea erabaki, eta bikote izatera igaro ziren. 1950eko hamarkadaren hasieran ezagutu zuten elkar.



Euskalduna eta espainiarra

Zineko maitasun istorio orok bezala, gorabeherak izan zituen Karmenen eta Enriqueren harremanak, eta hasieran zoragarria zena, gero okertu egin zen. Karmenen familiak, batez ere aitak, izan zuen eragina horretan. Izan ere, ez zuen begiko bere alaba Zamorako erdaldun batekin ibiltzea, eta harreman hura ez zuen onartu. Ondorioz, bikoteak ezkutuan ibili behar izaten zuen. Hala, askotan joaten ziren Getariarako bidean dagoen Zuloaga etxera. Eguraldi ona zenean, hainbestean moldatzen ziren, eta hola edo hala, beti aurkitzen zuten elkar ikusteko txokoren bat. Egoera, ordea, ez zen oso egokia, eta Enrique asko ari zen sufritzen, gogorra egiten zitzaiolako maite zuen neskaren etxean ez zutela onartzen barneratzea.

Halako batean, horrela ezin zutela jarraitu erabaki zuen, eta Karmeni «gureak ezin du izan, utzi egin beharko dugu» esanda, alde egin zuen Zumaiatik. Bilbora joan zen, baina ezin zuen Karmen burutik kendu. Eguna joan eta eguna etorri, harra barruan zuen, eta Karmenen Joseba anaiarengana joatea erabaki zuen. Hura Lekarozen zegoen klaseak ematen, eta hari eskatu zion laguntzeko. Bien bitartean, Karmen ere egonezinak jota zebilen,

Gaztea zenean, neskame lanetan jarduen zuen urte askoan. Ordurako emakume jantzia zen



Dendako lanak utzi eta jubilatuz zirenean ere, zoriontsu izan ziren Karmen eta Enrique

eta amari esan zion gizon hura asko maite zuela, eta berarekin ezkondu nahi zuela. Amak ea seguru zegoen galdetu zion eta, hala bazen, ezkontzeko.

Aitak oraindik ere aurre egin arren, egoera bere onera itzuli zen, eta Enrique Zumaiara itzulita, zineko maitasun istorio hark bere bi-deari segitu ahal izan zion.

Ezkontza eta bidaia

Lauzpabost urte «nobio» bezala igaro eta gero, iritsi zen egun handia. Gorabehera asko gainditu ondoren, ezkontzeko ordua heldu zitzaien. 1954ko uztailaren 4a zen, eta familiarentzat ez zen badaezpadako eguna izan. Izan ere, Karmenen eta Enriqueren ezkontzaz gain, bazen ospatzeko beste gertakari bat ere: Manuel eta Pako anaiek meza berria zuten, apaiz egiteko azken urratsa, eta ezkontza eta meza berria batera ospatu zituzten. San Pedro parrokian izan zen, eta gotzainak eman zuen meza. Eliza beteta zegoen, bai beheko eserlekuak, bai korua, eta familiarentzat ez ezik, herri guztiarentzat ospakizun handia izan zen hura. Karmen San Telmo kalean bizi zen orduan, eta kale guztia santelmoetan bezala txukundu zuten, hango apaingarri eta hemengo dotoreziarekin.

Gurasoentzat sekulako ospakizuna izan zen, eta 100 gonbidatu inguru izan zen Uranga ja-tetxeko bazkarian.

Ezkondu ziren, hortaz, eta orain ez bezala, ezkonbidaia motz-motza egin zuten. Enriqueren familiak Karmen ezagutzen ez zenez, (ezkontzara bizpahiru senide bakarrik etorri ziren) Zamora aldean igaro zituzten zortzi bat egun. Familia sakabanatuta zenez, egun batzuk leku batean eta besteak beste batean pasatu zituen bikote ezkonberriak.

Dendari

zkontzako festa guztiak bukatuta, errealitate gordinari aurre egin behar izan zioten ezkonberriek. Karmenen aitak Goiko plazako Telesfororen etxean zegoen lokal bat erosi zuen alaba zaharrenarentzat baliagarria izango zelakoan. Karmenek aitari esan zion denda jarri behar zuela, baina aita beldurtu egin zen. Izan ere, aurretik denda hura hartu zuten guztiek kale egin zuten, denda aurrera atera ezinda. Baina Karmeni ez zitzaion axola, eta bere buruarengan zuen konfiantza ikaragarriarekin eta beti aurrera egiteko zuen kemenarekin, denda jarri zuen. Aurreneko egunean, 300 pezeta



Zumaiako Zaharren Egoitzako Itzurungo Uhinak taldean hasi zen aktore lanetan. *Jesusen Jaiotza* antzezlanean, Baltasar erregearena egin zuen

irabazi zituzten. Hasiera hartan frutak saltzen zituzten. Gogorra izan zen hasiera hura, Enriquek dioen bezala «dirurik ez genuenez zerotik hasi behar izan genuelako». Aitak traspasoa ordaindu zuen lokala erostean, eta traspasoaz gain, dendako genero guztia ere ordaindu zioten ezkonberriek aitari. Enriquek berak beste lan bat ere egiten zuen: zapatak konpondu. Dendako jarduna bukatzean edo tarteak izaten zuenean aritzen zen horretan dendako sotoan edo bodegan.



Lan ugari egin zuen herriko taldean. Emanaldi batean ageri da hemen

Hura ez zen izan garai gogor hartan egin behar izan zuten diru ordaintze bakarra; etxe berria ere erosi zuten. Ezkonberritan, Kantera etxeko lehen solairuan bizi izan ziren, baina handik bi urtera bidali egin zituzten, etxe hura beste batentzat zela esanda. Hori gertatu eta zortzi bat egunera, Goiko kalean, Secretario kaleko etxe bat salgai zegoela jakin zuten, eta zalantza gutxi eginda, erosi egin zuten, 200.000 pezeta ordainduta. Enriquek gogoratzen duen bezala, «erdia bage-neukan, baina beste erdia falta zitzaigun, eta frutak askorako ematen ez zuenez, etxe erosi berria hipotekan jarri genuen».

Bazekiten egoera bere onera ekartzeko lan asko egin behar zutela. Orduan, Enriquek Galvanizajea egiten zuen lan, eta dendako lanean laguntzaile Maria Luisa ahizpa izan zuen Karmenek. Ahizpak dendan gauza gutxi egiten zuen jende askorik ez zelako ibiltzen, baina, hala ere, Enriquek adina diru irabazten zuen. Hori kontuan hartuta, Karmenek haxe proposatu zion senarrari: «Utzi ezazu lana, eta zatoz dendara nirekin. Azken finean, Maria Luisari ordaindu behar diodana zuri ematea izango da». Horrelaxe hasi ziren biak batera dendan, eta horrelaxe jarraitu zuten jubilatatu bitartean.

Pixkanaka, dendan gero eta bezero gehiago sartzen hasi zen, eta hasieran fruta denda zena, gero janari denda bilakatu zen. Egoera on horrek lagunduta, negozioari beste zer-bait gehitzea erabaki zuten, eta Enriquek sal-menta postua jarri zuen Goiko plazan, den-datik metro gutxira. Fruta saltzen zuen.

Egunero-egunero, 07:00ak baino lehen esna-tzen ziren, gauzak plazara eramateko. Denda azpian zegoen bodegan gordetzen zuten fruta, eta handik ateratzen zuten Enriquek plazara. 08:00ak alderako izaten ziren erosleak plazan, eta denetik zuenez, denetik erosten zioten: fruta, patatak, limoiak... 11:00ak aldera arte egoten zen han, eta udan, 12:00ak arte ere bai. Gero joaten zen dendara, Karmenengana. Ha-siera batean, eguerdietan ez zuten denda ix-ten, eta txandaka joaten ziren bazkaltzera on-doa zuten etxera. Karmenek prestatzen zuen bazkaria berak lehenago jateko, eta ondoren Enrique igotzen zen bazkaltzera. Arratsalde-tan ere dendan egon beharra zuten, eta, berez, 20:00etan itxi behar izaten bazuten ere, asko-tan 21:00ak arte ere egoten ziren. Hori horrela izateko zergatiak ederki azaltzen du Karme-nen izaera irekia zela. Bezeroekin zuen tratua-gatik, bai bera eta bai bezeroak gustura egoten ziren, eta emakume asko izaten zen denda itxi aurreko azken momentuetan joaten zena, gero Karmenekin solasaldi luzeak izateko. Oso eza-gunak ziren herrian denda hartako hitzaspertu horietan Karmenek kontatzen zituen pasadi-zoak eta txistekak.



Debalde da amets egitea antzezlaneko une batean

Denentzat zabalik

Dendan handia izaten zen joan-etorria, eta era guztietako bezeroen bisita izaten zuten. Egunero edo ia egunero joaten zirenez gain, ezohiko bisitak ere izaten zituzten: eskaleak. Horrelako egoeretan dendariak hartu ohi ez duen jarrera zeukan Karmenek. Eskaleek diru pixka bat pilatzen zutenean, dendara joa-ten ziren, baina gastatzeaz gain, libreta Kar-meni uzten zioten berak gorde zezan. Gus-tura asko egiten zuen lan hori, eta eskale askoren laguna egin zen.

Ezagunak ziren baita ere, apaizekin izaten zituena elkarriketak. Adarra jotzen abila zen, eta berdina zitzaien aurrean zuena zein izan. Hala, harreman berezia izan zuen Don Teodoro, Don Juan Ignacio eta Don Asentxio apaizekin, eta dendara sartu edo denda ingurutik igarotzen zirenean, ohikoa izaten zen Karmen eta apaizen bat hizketan ikustea.



Familia osoa: Enrique aita, Karmen ama, eta Viky alaba

Ama

Ezkonduta eta hiru urtera jaio zen Karmenen eta Enriqueren ume bakarra izango zena. Maria Victoria jarri zioten izena. Karmenek orduan 35 urte zituen, eta ziren garaiak izateko, berandu samar izan zen ama. Egia esateko, ezkondu ere berandu ezkondu zen orduan zegoen gazte ezkontzeko joerarekin alderatuta. Horrek, ordea, berari ez zion axola. Jaio zen, hortaz, gerora denek Viky bezala ezagutuko zuten umea.

Karmen egun batzuetan bakarrik egon zen etxean, eta alabaren jaiotzak ez ziren gorabehera handirik eragin eguneroko jardunean. Hori azaltzeko badira pare bat arrazoi. Batetik, Enrique aitak dioen bezala, «alaba oso lotia zen, eta orduak eta orduak ematen zituen lotan». Bestetik, Karmenek titia emateko zituen arazoak daude. Sendagileek biberioia emateko aholkatu zioten, eta horregatik, Karmenen eguneroko bizimodua ez zen hain lotua. Ia egun osoa dendan igarotzen zutenez, emakume bat zuten etxeko lan batzuketan egiteko. Gurasoak goizean goiz lanera joaten ziren bitartean, alaba etxean uzten zuten emakume harekin, eta bere loaldi luzeetatik esnatzen zenean, emakumeak Karmeni aditzera ematen zion etxera igo eta biberioia emateko. Era bitxian egiten zuen: balkoira irten, eta «Karmen!» oihukatzea nahikoa zen, hura dendatik txistu batean irten, eta etxera igotzeko. Dendan ere beste emakume bat zutenez, negoziaren jardua



1954an jaio zen alaba bakarra: Viky. Amarekin harreman berezia eta estua izan zuen

nean ez zuen oztopo handirik sortzen Karmen une batean etxean izan beharrak.

Horrela aritu ziren alaba koxkortu zen artean, baina orduan sortu ziren arazoak. Alaba bakarra zenez, gurasoak kezka arrak jan zituen. Alabak berak kontatzen duenez, «bel-durra zuten ume bakarra izanda behar bezalako heziketa ez ote nuen jasoko», eta Irune-ko internatu batera eramatea erabaki zuten. Mojen Compañía de Maria zelako hartan igaro zituen sei bat urte, eta ez zen esperimentzia oso ona izan. 15 urterekin, ordea, etxera ekarri beharrean, «señoriten erresidencia» batera eraman zuten. Vikyk dioen bezala, «nerabezaro txarra izan nuen».

Gerora ere, alabak askotan leporatzen zion amari erabaki haiek hartu izana, baina Karmenek beti gauza bera erantzuten zion: «Zure onerako zirelakoan hartu genituen erabaki haiek». Beste gainontzean, ordea, harreman estua eta berezia izan zuten amak eta alabak. Karmen oso goxoa eta bihozbera zen, eta alabak gogoratzen duen bezala, «zenbat aldiz ez ote genuen elkarrekin negar egin». Maitasun handia eman zion alabari, eta baita lagundu ere. «Nire bizitzan hartu ditudan erabaki zailenak amari esker hartu ditut», dio Vikyk. «Mugitu ipurdi hori, eta aurrera!», esaten zion Karmenek bere-berea zuen graziarekin eta bizitasunarekin.

Aurrerakoia

Garai hartako emakumea izateko, berezia zen Karmen, aitzindaria, oso aurrerakoia. Ausarta. Etxean bertan izan zuen hori erakusteko aukera. Alabak lesbiana zela esan zion. «Pentsa hori zer zen orduan», gogoratzen du Vikyk. Bada, amaren erantzuna hauxe izan zen: «Konturatuta nengoen horrela zela, eta zergatik ez didazu lehenago esan?». Alabari babes guztia eman zion, «herri guztian beste konturik ez zegoelako orduan», dio Vikyk. Baina ez zen

alaba babesteko bakarrik izan; oso aurrerakoia eta irekia zenez, askatasun sexualaren aldekoa zelako ere babestu zuen alaba.

Pentsatzeko era hori izanda, ez da harritzekoa era guztietako pertsonen laguna izatea. Hala, transexualen, bohemioen eta pentsaera guztietakoen laguna zen. Horretarako, ordea, bazuen baldintza bat: pertsona onak izatea. Ezaugarri hori zuten guztiekin konpontzen zen ondo, alabak dioen bezala, «arazoak ez zitzaizkiolako gustatzen».



Jontxu Alzibar erkidea eta Karmen Balentziaga. Elkarrekin lan asko egin zuten, bai antzerkian, bai telebistan


Jubilatu eta lanera

Betidanik izan zen antzerki zalea Karmen Balentziaga. Dendan oporrak hartzen zituztenean, alaba eta ahizpa hartu eta Valladolidera, Logroñora edo Madrilera joaten zen antzerkiak ikustera. Garai hartan ez zekiena zen, jubilatatu eta berehala horretan ariko zela lanean.

Aurretik, ordea, eginak zituen lan batzuk. Hala, gerra ondorenean baziren herrian antzerkia egiten zuten bi leku: Parrokia eta Batzokia. Horietako batean egin zuen *Herodesen Gaztelua* antzezlan.

Bere zaletasuna bete-betean jorratzeko aukera, ordea, jubilatatu eta berehala

sortu zitzaion. Zumaian izan zen. Beheko Plaza gizarte zentroan bazen jubilatuek osatutako antzerki taldea: Itzurungo Uhinak. Itziar Maiora zen zentroko koordinatzailea, eta etxera joan zitzaion Karmeni taldean parte hartzeko aukera eskainiz. Berezko dohainak zituen horretarako, eta Maiora berehala ohartu zen horretaz. Bistan da zein izan zen Karmen Balentziagaren erantzuna, eta hantxe



64 seriea grabatzera Ingalaterrara ere joan ziren

hasi zen dena. Jubilatu berria zen orduan, eta denda lagata zuten Enriquek eta berak (gizona lehenago jubilatu bazen ere, Karmenek erretiroa hartu arte lanean jardun zuten).

Lau antzezlan egin zituen herriko taldearekin: *Ameriketako Osaba*, *Debalde da amets egitea*, *Jesusen Jaiotza* eta *Uste dinat, ya lo creo*. Zumaian ez ezik, Eibarren, Donostian, Azpeitian eta Zubietan ere egin zituzten emanaldiak. Zubietakoan, gainera, pasadizo berezia

gertatu zitzaion Karmeni. Antzeztan ari zirela, haizeak telazko eszenografia gainera bota zion, eta ikaragarriko erreflexuak zituenenez, «sokorro-sokorro» oihukatuz hasi zen ikus-entzuleen algarak eraginez.

Kasualitateak-edo hala nahi izanda, antzezlan horietako batean telebistako langileren baten ikusi zuen. Jubilatuen antzerki taldeari buruzko erreportajea egin zuen ETBk, eta elkarrizketatua zein izango eta Karmen Balentziaga. Liluratu egin zituen, nonbait, eta telebistakoak Zumaia etorri zitzaizkion proba antzeko bat egitera. Berriz ere liluratuko zituen, telebistako serie batean lanean ari zeko aukera eman ziotelako.



ETBko 64 seriean, Bixentaren papera jokatu zuen, eta oso desberdinak zirela zioen: bera alai, eta Bixenta petrala

Telebistan

64 izeneko seriea zen hura, eta ETBn emateko jardun zuten lanean. Adinekoen egoitza bateko gorabeherak kontatzen zituen. Karmenek Bixenta izeneko amona baten papera jokatu zuen, eta aktore izatea benetan gus-tuko izan arren, egokitu zitzaion pertsonaia-rekin ez zegoen batere konforme: «Hain gara desberdinak; petralegia da Bixenta nire aldean», esaten zuen. Euskaraz eta gazteleraz eman zuen ETBk, eta ez ziren kapitulu gutxi izan: denera, berrogeita bi. Aktore ia guztiak amateurrak eta jubilatutak ziren, eta Karmeni asko lagundu zion beste zumaia batek ere parte hartzea, Jontxu Alzibar erkideak ere lan egin zuelako.

Logroñoeko egoitza batean egin zituzten grabaketak, eta atzera eta aurrera ez ibiltzeagatik, lau egunerako joaten ziren bertara, egin beharreko grabazio guztiak egitera. Etxera itzultzen zenean, aldiz, gidoiak ikasten ematen zuen denbora, baina azkarra zenez, berehala sartzen zitzaizkion buruan. Ikasi ondoren, alabak lezioa hartzen zion, eta une entretenigarriak izaten ziren haiek Karmenen etxean.

Izan zuen gerora ere gidoi gehiago ikasteko aukera, ETBrako zen beste serie batetik deitu ziotelako: *Jaun eta Jabe*. EAEko lehendakariaren eguneroko bizimodua kontatzeko serie horretan, lehendakariaren amarena egin zuen Karmenek. Aurrekoarekin alderatuta,



Torre, luzera ertaineko filmean, adineko psikopata baten papera jokatu zuen Karmen Balentziagak

esperientzia desberdina zen, besteak beste, aktore profesionalekin jardun behar izan zuelako: Joxe Ramon Soroiz, Mikel Garmendia, Mireia Gabilondo, eta beste erkide bat, Elena Irureta. Arrakasta handia izan zuen serieak.

Karmenen dohain bereziak ikusita, hiru-garren lan bat ere egin zuen ETBrentzat. Hura ere seriea zen, eta aurrekoekin alderatuta, kapitulu gehien izan zituen izan zen.



Jaun eta jabe seriean, lankide izan zituen gainontzeko aktoreekin

Benta Berri zuen izena, eta Karmenek Joxepi-
ren papera jokatu zuen landetxe bilakatu zu-
ten baserri hartan. Ramon Agirre, Klaudio
Landa, eta beste hainbat aktore izan zituen
lankide, baita beste zumaia bat ere: Kandido
Uranga.

Telebistako serietan egindako lanekin buka-
tzeko, aurrekoen aldean arrakasta txikixea-
goa izan zuen *Gure familia* eta beste piztia ba-
tzuk seriean ere aritu zen, besteak beste,
Patxo Telleriarekin eta Anne Igartiburrekin.
Baita *Misteriozko Giltzak* izeneko kapitulu ba-
tean ere.



Benta Berri izan zen ETBrako egin zuen azkeneko seriea

Mahai-inguruak, film laburrak, iragarkiak...

Telebistan egindako lanek ospea eman zioten Karmeni, eta horri esker, beste lan batzuetan aritzeko aukera izan zuen. Azkenean, telebistako aktore bezala gogoratzen dugun arren, beste hainbat lan ere egin zuen interpretazioaren alorrean. Horien artean daude hiru film labur: *Insumisión* izenekoan, militar baten ama alargunarena egin zuen, eta lehenengo eta azkeneko aldiz, Enriquek ere parte hartu zuen lan horretan; *Huelga* izenekoan, saltzailearen papera jokatu zuen; azkenik, *Torre* izeneko luzera ertaineko lanean, adineko psikopata batena egitea tokatu zitzaion.

Iragarki pare bat ere egin zituen, biak Eusko Jaurlaritzak babestutakoak. Batek bidaiak promozionatzeko helburua zuen, eta besteak Bilboko zapata denda handi bat.

Film luzeetan ere parte hartzeko astia izan zuen Karmenek. Bitan aritu zen, eta horietako bat berezi xamarra zen, gainera. Sevilan (Espainia) egin zen Expo azokan, Eusko Jaurlaritzak film bat aurkeztu zuen EAEren berri munduari emateko. Promozionatzeko spot edo iragarki modukoa izan zen *Mi País Vasco* hura, eta Craig Bartlett estatubatuarra zuzendari zela, 360 graduko kamera berri batekin grabatu zuen. Esperientzia berri horretan parte hartzeko aukera izan zuen Karmenek.



Enrique gizona ere konbentzitu zuen film labur batean elkarrekin lan egiteko. *Insumisión* lanean izan zen

Beste film luzea *Días de humo* izan zen, eta Antxon Ezeizaren zuzendaritzapean aritu zen lanean.

Telebistaren mundura atzera itzulita, *Txiskola* eta *Balinda* lehiaketetan agerraldi laburrak ere egin zituen, eta kamera ezkutuko emaldi batzuetan ere azaldu izan zen.

Aktore bezala ezagun egiten ari zen heinean, elkarriketak-eta ugaritu egin zitzaizkion, eta horietan bere izateko era nolakoa zen age-



Telebistako mahai-inguruetan ere aritu zen. Argazkian, *Rifi-Rafe* saioan ageri da, Alfonso del Real aktorearekin

rian uzteko aukera izan zuen. Irekia, ausarta, aitzindaria, azkarra zela kontuan izanda, ezin egokiagoa zen mahai-inguruetan aritzeko, eta berehala jaso zituen tankera horretako saioetan aritzeko eskaintzak. Ez zien ezetzik esan, eta ezagunak egin ziren Antxon Urrusoloren *Riffi Raffe* saioan egin zituen agerraldiak, hirugarren adineko egoitzez, adinekoetz eta bizitzaz hitz egiten. Edozertaz mintzatzeko prest izaten zen, eta *Ganbaran* saioan ordubeteko elkarrizketa pertsonala egin zioten sexuari buruz hitz egiteko.



Iragarkiak ere grabatu zituen

Sariak eta omenaldiak

Karmen aktore ona zela, lan horretan hasi orduko gelditu zen agerian. Berezko gaitasuna zuen, eta zenbat aldiz ez ote zuen esan «nik hau gaztetan harrapatu izan banu» esaldia. Kontuak kontu, jubilatutik ondoren hasi zen, eta hamabi urte egin zituen aktore lanean. Nahikoa izan zituen bi sari eta hamaika omenaldi jasotzeko.

Aurreneko saria Azpeitian eman zioten, VII. Antzerki Topaketan baitan. Herriko jubilatuek osatzen zuten Itzurungo Uhinak taldeak *Debalde da amets egitea* lana taularatu

zuen, eta Karmeni Aktore Amateur Onenaren saria eman zioten. 1989an izan zen hori.

Bigarren sariak sekulako ilusioa sortu zion. Ezustean jaso zuen, gainera. 1998an izan zen, martxoaren 4an. Bost urte lehenagotik hasita, euskal aktoreek beren jaialdia egiten zuten, eta urtero-urtero hainbat sari banatzen zuten ekitaldi horretan. Urte hartakoa Victoria Eugenia antzokian izan zen, baina Karmenek ez zekien aktore heldu bati ematen zi-

tzaion Besarkada saria berari eman behar ziotenik. Alabak bazekien, ordea, eta familia osoari esan zion bertara azaltzeko. Alabak berak dioenez, kosta zitzaion ama Donostia aldera eramatea, baina azkenean eraman zuen. A zer-nolako ezustea hartu zuen Karmenek familia osoa han ikusi zuenean. Berak bakarrik jakingo du zerbait susmatzen hasi ote zen. Iritsi zen, hortaz, Besarkada saria emateko garaia, eta hara non entzuten duen bere izena. Sekulako txalo zaparrada etorri



1989an, Azpeitiko Antzerki Topaketen baitan, Aktore Amateur Onenaren saria eman zioten. Eskuinetik bosgarrena da, eta gustura dago, saria eskuan duela



1998an, Euskal Aktoreen Jaialdian, Besarkada saria eman zioten bere lankideek, eta ezustea izan bazen ere, berehala egokitu zen, eta sekulako ikuskizuna eman zuen

zen ondoren. Eszenatokira igo zen, bere lankideek aho batez berari ematea erabaki zuten saria jasotzera. Ezustea zenez, ez zeukan ezer prestatuta, baina sekulako bizitasuna eta azkartasuna zuenez, dantzan eta kantuan hasi zen. Berehala egin zuten bat antzokian zeuden guztiek, eta sekulako ikuskizuna jarri zuen martxan Karmenek.

Jaso zituen hainbat omenaldiren artean, bat berezia izan zen. 1998an izan zen hura ere, ekainaren 14an. Bidasoako Izokinaren Kofradiak ohorezko kofrade izendatu zuen, eta egun hartan egin zen ekitaldia. Ez da, ez, edonolako aipamena, Karmenen aurretik oso pertsonaia ezagunek jaso izan zutelako: Camilo Jose Cela, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Juan Mari Arzak, Manu Legineche eta Alfredo Landa, besteak beste.



1998an, Bidasoako Izokinaren Kofradiak ohorezko kofrade izendatu zuen





Enrique senarra eta biak, Hondarribian. Askotan joaten ziren hara

Osasun arazoak



nrique senarrak dioenez, jubilatuta berri-tan besoan erpesa izan zuen, eta gaiz-toa izan behar zuen, bolada txarra pa-satu zuelako bizkarreko minekin-eta. Ez zitzaioan erabat sendatu, baina se-narrak dioenez, «aktore lanetan ibil-tzeak asko lagundu zion, minak ahaz-tarazten zizkiolako».

Bestelako arazo bat ere izan zuen. As-kotan izaten zituen Karmenek arnasa hartzeko arazoak. Bronkioetatik gaizki ibiltzen zen, eta tarteka-tarteka, ito-larriak ematen zion. Gero, ordea, bere onera etortzen zen, eta hain gustuko zuen aktore lanean jarraitzeko aukera

izan zuen. Minak bakarrik sufritzen zituen, ez zuelako nahi ingurukoek sufriaraztea. Bere ahizpek dioten bezala, «gerora jakiten genuen bere bolada txarren berri, besteengan gehia-go pentsatzen zuelako bere buruarengan bai-no». Egun batean, ordea, bere bihotzak nahi-koa zela esan zuen. Bat-bateko gaitza izan zen, 1999ko abenduaren 27an, Donostian ze-lako ahizpekin-eta bazkaltzen. Martin Bera-sategik Kursaalean duen jatetxean zeuden, eta Karmen lasai eta oso pozik zegoen.

1999. urtea bukatzeko bizpahiru egun falta zirenean, eta etxean zela, Viky alabak oso ne-katua ikusi zuen. Sarritan izaten zen horrela-ko egoeran, baina ordukoa ohikoa ez zela iruditu zitzaion alabari. «Goazen erresiden-

tziara» esan zion amari, baina Karmenek «ezet; ez dut urte berria ingresatuta pasatu nahi». Alabak, orduan: «Han bazaude ni joango naiz xanpainarekin urte berria ospatzera». Ingresatu ala ez zeudela, alabak lagun bati deitu zion, etxera joateko eskatuz ama nola ikusten zuen galdetzeko asmoz. Joan zen lagun hura etxera, eta alaba eta biak aparteko gela batean sartu ziren, zigarro bana erre eta ama ingresatu ala ez erabakitzeko. Halako batean, Karmenen oihuak entzun zituzten: «Arnasa, arnasa!», oihukatzen zuen. Ama hartu, anbulantziari deitu, eta erresidentziarantz abiatu ziren. Bidean, ordea, okerrerrantz egin zuen egoerak, eta autobidean 45 minutuz egon ziren geldirik, Karmeni arnasa hartzeko makina jartzen. Gaizki zegoen, eta ospitalera heldu orduko, txarrena pentsatzeko esan zien sendagileak. Alabak ez zuen sinesten zer gertatzen ari zen: «Nola liteke!» esan zion medikuari, «orain dela gutxi berarekin hitz egiten ari nintzen, eta nekea zuen, baina gehiago ez».

2000. urtea Zaintza Berezien Gelan zela etorri zen, baina ez zen ezertaz jabetu. Bederatzi egun egin zituen horrela, eta hantxe hil zen Karmen Balentziaga. Urtarrilaren 8a zen.

Karmen Balentziagaren hilobia, lorez gainezka. Lagun asko egin zituen, eta bere heriotzak samina eragin zuen

Hileta elizkizunak eta babes ugari

Hurrengo egunean egin ziren hileta elizkizunak San Pedro parrokian, eta jende ugari bildu zen: herritarrak, lagunak, aktoreak, agintariak... Hurrengo egunetan, Karmenen etxean kontaezinak izan ziren oharrak jaso zituzten, gutunak eta babesa emateko antzeko idatzia. Amaren eta emaztearen heriotzak eragin zien tristura zertxobait alaitzeko balio izan zien halako babesa jaso izanak Viky alabari eta Enrique senarrari. Egun haietan honela esaten zion alabak aitari: «Konturatzen al zara nolako emakumearekin bizi izan zaren?».



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkio:

- Balentziaga familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2476-2 84-457-2480-0
L.G.:	BI - 2747-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística